

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Julian Gayarrereren heriotzaren 125. urteurrena eta haren Museo-etxearen 25. urteurrena gogoratu ditu Erronkarik

Agintariak, tenorearen senitartekoak eta herritarrek lore-koroa jarri dute haren mausoleoan

Viernes, 02 de enero de 2015

Ostiral honetan, urtarrilak 2, betetzen dira 125 urte Julian Gayarre tenore nafarra hil zela eta 25 urte Erronkariko haren Museo-etxea inauguratu zela, bere heriotzaren 100. urteurrenarekin bat eginez ireki baitzen.

Urteurren horiek direla eta, Julian Gayarre Fundazioak eta Erronkariko Udalak ekitaldia ospatu dute Museo-etxean; hantxe izan dira, besteak beste, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sanchez de Muniain eta Lan Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Jose Jabier Esparza.

Eguerdiko hamabietan hasi da ekitaldia, Oscar de Miguel Erronkariko Udaleko Kultura zinegotziaren, Alfredo Cabodevilla Erronkariko alkatearen eta Sanchez de Muniain kontseilariaren hitzaldiekin.

Julian Gayarre Abesbatzaren emanaldiaren ondoren, agintariak, tenorearen senitartekoak eta herritarrek hilerrira joan dira, Gayarrereren mausoleoaren aurrean lore-koroa jarri eta haren alde otoitz egitera.

Tenore nafarrari egin dioten omenaldiari amaiera emateko, "Lore bat Gayarrerentzat" ekitaldira joan direnek loreak jarri dizkiote eta abesbatzaren emanaldia izan da.

Oroigarritzko liburu bat sinatzeko aukera izan dute partaideek; liburu hori, gainera, urte osoan zehar egongo da Museo-etxean, bisitariak sina dezaten.

Bi urteurren horiek direla eta, larunbatean eta igandean, urtarrilak 3 eta 4, doan bisitatu ahal izango da Museo-etxea, ohiko ordutegian: larunbatean, 11:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara; igandean, berriz,



Agintariak, Gayarrereren mausoleoaren ondoan

11:30etik 13:30era.

Julián Gayarre

Julian Gayarre (Erronkari 1844 – Madril, 1890) mundu mailako entzutea duen eta operaren historiako tenore onenetako bat da.

Erronkariko herritar xumeen semea zen; hainbat eskulangintzatan jardun ondoren, Iruñera joan zen eta hantxe bizi izan zen zenbait urtez, errementari lanean. 1865ean, Orfeon Pamplones zeritzon orfeoian hasi zen. Orfeoiko lehendakari Conrado Garcari eta Madrilgo Errege Kontserbatorioiko zuzendari Hilarion Eslavari esker, ikastetxe horretan ikasketak egin ahal izan zituen.

Tuteran (Nafarroa) egin zuen jendaurreko bere lehendabiziko aurkezpena zarzuela konpainia batean, 1867an, Sandoval izenaz.

1868an, kantu lehiaketako bigarren saria eman zioten Madrilgo Kontserbatorioan. 1869an Iruñera itzuli zen eta Orfeon Pamplonesekin parte hartu zuen emanaldi batean. Lortutako arrakastari esker, Italian ikasteko beka bat eman zion Foru Diputazioak.

1869an Milanon bizi zen eta Gelli maisuarekin ikasten zuen; Varesen debutatu zuen arrakasta handiz. Geroago, Italiako hiri askotan jardun zuen abesten.

1872an Espainiara itzuli zen eta Sevillako San Fernando Antzokian aurkeztu zen. Harrezkero, Europako hainbat hiri bisitatu zituen lortutako kontratuei esker. Milanoko Scalan lortu zuen mundu mailako entzutea, 1876ko urtarrilaren 2an, gustukoen zuen paperarekin, Donizettiren "La Favorita" obrako Fernandorenarekin, hain zuzen ere.

Nazioarteko bere karreraren oinarritzko uneen artean, nabarmentzekoak dira honakoak: Buenos Airesko Colon Antzokiko debuta, 1876an; Londongo Covent Gardenekoa eta Madrilgo Errege Antzokikoa, 1877an; Italiarren Antzokian (1884) eta Parisko Opera Handian (1886). Errusiako eta Brasilgo eszenatokietan ere eskaini zituen emanaldiak eta Estatu Batuetan abesteko hainbat eskaintza errefusatu zituen.

Laringean zeukan arazoaren ondorioz, ezin izan zuen Madrilgo Errege Antzokiko 1889-90 denboraldia amaitu eta hiri hartan hil zen, 1890eko urtarrilaren 2an.

Julian Gayarrerren Museo-etxea

1889an sortu zuten Julian Gayarre Fundazioa: tenorearen familiako, Erronkariko Udaleko eta Nafarroako Gobernuako kideek osatzen dute fundazioa.

Fundazioaren hasiera bateko ondarea Julian Gayarrerren ondorengoek emandakoak osatzen zuen: Museo-etxeak berak eta etxe hartan zeuden objektuek, Mariano Benlliurek egindako bere mausoleoa eta hiribilduko hainbat lekutan zeuden ondasunek.

Fundazioaren helburua da bere ondarea eta ondareari gehitzen zaizkion ondasun guztiak kontserbatzeko, babesteko eta zaintzeko lan egitea; baita horiek defendatzera, hedatzera eta ezagutaraztera bideratutako ekintzak eta programak betetzea ere, Fundazioaren funts artistikoen eta agiri-funtsen azterketarako eta ikerketarako bideak emanez eta Erronkariko tenorea oroitzeko eta omentzeko ekimenak sustatuz.



Segizioa hilerrirako bidean, lore-koroa jartzera

Julian Gayarrerren Museo-etxea 1990eko urtarrilaren 2an inauguratu zuten, bere heriotzaren 100. urteurrenean; tenorearen aginduz 1879an eraikitako eraikinean kokatzen da, bere jaiotetxea izandako orube bertan; bere familiarentzako etxebizitza zen eta zeuzkan oporraldi laburretan joaten zen bera etxe hartara.

Oin-planta karratukoa, hiru solairu, ganbara eta lau ureko teilatua dauzka. Barrualdea egokitu egin zuten, eraikinaren eginkizun berrirako.

Beheko solairuan bere garaian kokatzen da Gayarre; kronologikoki erakusten da bere bizitza, agiriaren, argazkien, sarien, izendapenen, libretoen, partituren, opariaren eta tenoreak bere bidaietan erositako hainbat objektu bereziren bitartez.

Lehenengo solairuan bere opera emanaldietan erabilitako trajeak eta osagarriak erakusten dira; baita bere karrera artistikoan zehar jaso zituen opariak ere. Guzti hori osatzeko, gutunei, argazkiei, prentsa-ebakinak eta bestelako agiri interesgarriei eskainitako espazioa dago. Bigarren solairuan, familiaren altzariz jantzitako egongelan, bere pianoa eta laringea kontserbatzen dira; izan ere, laringea kendu egin zioten baltsamatu aurretik, ikertzeko.

Museo-etxearen bisita osatzeko, Mariano Benlliure eskultorearen mausoleoa ere bisita daiteke, Erronkariko hilerrian.

Galería de fotos



Lore-korua eskaintzeko unea



Julian Gayarre abesbatzaren emanaldia